


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Jainkoa harrapatzeko tranpa

[Jon Gerediaga](#)

PAMIELA


86 orrialde

13,50 euro

Bizitzari idatzitako olerki bilduma

Duela hiru urte kaleratu zuen Jon Gerediagak bere aurreneko poema liburua, *Fitola balba, karpuki tui*. Une txar batean sortua zen, depresio bat gainditu ondoren, eta nahiko iluna atera zitzaion. Guztiz bestelakoa da *Jainkoa harrapatzeko tranpa* izeneko. Antza denez, azken urteotan hobe portatu da bizitza FTI-Antzerkiola Imaginarioaren sortzaile izandako egilearekin, eta bizitzari kantatzeko gogo piztu zaio. Bizirik egotea da beretzat Jainkoa, Pamiela argitaletxearen bidez kaleratu den liburuaren hitzaurrean Anjel Zelaietak egin duen interpretazioan. Alde egi-

ten duela dakien arren, bizitzaz ari da Jon Gerediaga; tartean borroka dagoelako, eta borroka horretan gizakia zoriotsua izan daitekeelako. ■



Psikologia eta epistemologia

[Jean Piaget](#)

GAIAK


190 orrialde

Haurrek errealitatea pentsatzeko dituzten kontzeptuak

Jean Piaget (1896-1980) haurren psikologiaren eta ikaskuntzaren izaera logiko eta epistemologikoari buruz egindako azterketengatik egin zen ospetsu. Genevako (Suitza) J. J. Rousseau institutuko zuzendari izan zen, eta epistemologia genetikoaren teoria ere berari zor zaio. Horixe da hain zuzen, Gaiak argitaletxeak euskaraz plazaratutako *Psikologia eta Epistemologia* liburuaren gaia. Alberto Gabikagojeaskoak egindako itzulpenari esker teoria horren laburpen erabilgarria eta erraza eskaini dute. Haurrek errealitatea pentsatzeko kontzeptuak —espazioa, denbora eta identitatea bezalakoak— nola sortzen dituzten ikusi eta gero, gizarte alorrean gauza berak ulertu ahal izateko darabiltzagunak azaltzen ahalegintzen da Jean Piaget. ■

Woody Allenen biografia eta lanak

Mundu osoan ezagun egin den zinema zuzendari, gidoigile eta *showman*aren bizitza eta eginahalen berri eman du Koldo Goitiak *Woody Allen. Bizitza kontrako ezta-rritik* liburuan. 1935ean New Yorkeko (AEB) Brooklyn auzoan jaio zenetik eman dituen urratsak eta gaur arte egin dituen film guztien xehetasunak jaso ahal izango ditu irakurleak. Baita haren izaerarekin lotuta dauden bestelako alderdiak ere; esate baterako, emakumeekin duen arrakasta; gizon metodikoa, txukuna eta langile amorratua dela; edota arrakastari dion izu patologikoa. “Hoollywooden nire filmak pase pribatueta ikusten ari badira, garbi daukat zerbait gaizki egin dudala”, aitortu omen zuen elkarrizketa batean bizitzaren tragedia modu komikoan azaltzen maisu den gizonak. ■



Woody Allen. Bizitza kontrako ezta-rritik

[Koldo Goitia](#)

ELKAR

142 orrialde

10,50 euro

Euskal antzerkia hizpide

Haur eta gazte literaturako *Behinola* aldizkariaren 16. zenbakian Euskal Herriko antzerki mundua dute hizpide. Aizpea Goenaga, Yolanda Arrieta eta Enkarni Genua antzerki zale, idazle eta zuzendarien bizitzako zertzeladak ezagutzeaz gainera, egungo euskal antzerkiaz duten ikuspegia jakiteko aukera izango du irakurleak. Jarraian, euskal antzerkiaren historiaren islak eskaini dituzte Manu Lopezek eta Xabier Etxaniz Erlek. Bestalde, Mariasun Landaren bi lan ere argitaratu dira *Behinola* honetan: gonbidapen berezia agertzen duen poema, batetik; lagun eta lankide izan zuen Asun Balzola bilbotarrari eskainitako gorazarrea bestetik. Haur eta gazteei zuzendutako liburuen kritikak eta erreseinak ere ez dira falta. Laura Sagastumeri, Manu Lopezi eta Xabier Etxaniz Erleri zor zaizkio. ■



Behinola

[Batzuen artean](#)

GALTZAGORRI

ELKARTEA

64 orrialde

6 euro



Hogeita lau ordu
emakume baten
bizitzan

Stefan Zweig

IGELA

94 orrialde / 10 euro

Joko grinak eta pasioak talka egiten dutenean

Edorta Mataukok euskaratu du Stefan Zweig idazle austriarraren *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* nobela. Bizitza erabat antolatu eta konbentzionalera ohituta dagoen 42 urteko emakume batek egun oso batez bizitzeko sentituko duen irrika da liburuaren oinarria. Montecarlora joan eta han, 24 urte inguruko gaztea ezagutu du. Jokalari amorratua da gaztea, eta daukan diru guztia galdu ondoren bere buruaz beste egiteko prest dago. Emakumeak hori eragozteko beharrezkoa dena egitea deliberratu du. Gaztea jokorik gabeko bizitza normalera itzultzea da bere helburua. Baina jokalariaren irrika handiegia da. ■

Fernando Morillok gazteentzat idatzitako *Iratiko sorgin basatia*

Iratiko oihanera egun batzuk pasatzera doan ikasle taldea da Fernando Morillok idatzitako nobela honen protagonista. Behin han, zer edo zer oso larria gertatzen ari dela ikusi dute, behi baten erraiak irekita eta txiki-txiki eginda, eta emakume zahar bat biluzik eta odoletan blai azaldu zaizkienean. Arazoari aurre egin nahi diote neska-mutilek, horretarako han bizi den Sorgin Basatiaren laguntza beharko badute ere. Borroka latza izango da, baina eginahalean nork bere burua ezagutzeko parada izango du. ■

Iratiko sorgin basatia

Fernando Morillo

IBAIZABAL

210 orrialde / 9,80 euro



JOAN MARI TORREALDAI

«Irakurri egiten da gutxi euskal liburua, ez gehiegi publikatu»

30 urte daramatzazu liburugintza aztertzen.

Egi-egia da ustekabean hasi nintzela. Bizitzako hautapen asko horrelakoxeak omen dira. Nire azterketa soziologikorako oinarritzko informazioa behar nuelako hasi nintzen. Eta hasiz gero segitu egin behar, beste inork heltzen ez ziolako.

Zertan mamitzen da lan hori?

Hiru lan diferente egin behar dira urtero. Liburuak fitxatzea da aurreneko lana, nekezena; hasi nintzen hartan 100 pasatxo ziren fitxatu nituenak, eta gaur egun 2.000 pasa dira; bada alderik. Gaien arabera sailkatzea dator gero; eta hirugarrenik, komentarioa. Orain plazaratu dudan liburuan elkarren ondoan jarri ditut 30 urtetan *Jakin*-en idatzi ditudan gogoeten, kezken, zalantzen, haserrearen, txaloen eta iruzkinen laburpentsua. Hautapen lana ez da samurra izan, baina bai beharrezkoa; agian aukeratu ditudan baino pasarte interesgarriagoak kanpoan utzi ditut, baina...

Euskal merkatua saturatuta al dago?

Badira bi esaldi, egia izanik ere, errealitatea ezkutitzen dutenak. «Irakurtzen denarekin alderatuta gehiegi publikatzen da euskaraz» da bat; «publikatzen den guztia ezin da irakurri», bestea. Irtenbidea ez da iradokitzen dutena; alegia, gutxiago argitaratu behar dela. Kontrara baizik. Produksioa ikusi besterik ez dago, euskaraz bizi nahi duen gizarte edo herri baten ikuspegitik gutxi(egi) publikatzen dela ondorioztatzeko. Gure liburugintzaren soluzioa ez dator eskaintza murriztetik, eskaria handitzetik baizik. Irakurri egiten da gutxi, ez gehiegi publikatu. Irakurketa da bultzatu behar dena, eskaria.



DANI BLANCO

30 urteko bilakaera euskal liburugintzan

Hutsune bat betetzearren ekin zion Joan Mari Torrealdaik euskal liburugintza aztertzeari.

Euskal idazleak, gaur (1977) lana prestatzen hasi zenean jabetu zen zein informazio gutxi eta eskasa genuen euskal produkzio idatziaren gainean, azterketa soziologikoa egin ahal izateko ezdeusa. Geroztik, urtez urte plazaratu ditu *Jakin* aldizkarian gaiari lotutako ikerketak, nahiz eta aitortzen duen bibliografia ariketetan luze eta sakon jarduteko aldizkarian baino aukera gehiago izan duela bestela, enkarzuguzko lanetan edota bere gain hartu dituenetan. Garrantzizkoenak *Euskal idazleak, gaur* eta 1997an kaleratu zuen *Euskal kultura gaur* izan dira. 30 urte liburugintzan lanean, epe horretako emaitzak idatziz eta grafikoetan azaltzeaz gainera, informazio berria eskaini du, euskal liburuaren sektoreak eman diona, irakurleak



30 urte
librugintzan

Joan Mari
Torrealda

JAKIN

182 orrialde

12 euro

jakin dezan zenbatekoak diren eta izan diren tiradak, zein den 30 urteotako ale kopurua bai orokorrean eta bai generoka, eta zein den ekoizpenaren fakturazioa. Kultur industriak hazkunde esanguratsua izan duela azaldu du: XXI. mendeko lehen bost urteetako produkzioaren balioa 214.000.000 eurokoa da; zerikusi gutxi frankismoa bukatu ondorengo 46.000.000 euroekin. ■

egileari galdezka